

Josu Iztueta bidaiaia, *Nora* aldizkaria eskuan duela. ARGAZKIAK: JON URBE / ARGAZKI PRESS

# ‘Nora’, norabidea aurkitzeko

Euskarazko lehen bidaia aldizkaria kalean da; kalitate handiko testu eta argazkiak ditu

AMAI A ELIZONDO  
Andoain

«Xumea baina edertasunez josia da *Nora* aldizkaria», adierazi zuen atzo Imanol Agirrek, *Nora* aldizkari-ko zuzendariak. Izan ere, euskarazko lehen bidaia aldizkaria aurkeztu zuten atzo, Sua edizioen eta EKT Euskarazko Komunikazio Taldearen elkarlanari esker. Gonbidatu guztiak aldizkariaren lehen alearekin erabat harrituta geratu ziren. Eta arrazoia ez dira

falta. Irudi ikusgarriak eta kalitate handiko testuak ditu bidaia aldizkariak. Hilerio hainbat norabide erakutsiko ditu bere orrietan, eta askoren bidelagun izango da aurrerantz.

«Bidaieen gaineko hausnarketa egiteko tresna izango da, eta horretarako, hainbat atal izango ditu aldizkariak», azaldu zuen Agirrek. Proposamen praktikoak emango zaizkio irakurleari. Irudiak, fitxak... material grafiko ugari izango du, irakurlea harritzeko. Horrez gain, memoriaren mapa zabalduko du *Nora*-k, urte askotako tokiek duten magia erakutsiz. Lan talde handia dago aldizkariaren atzean, eta guztiak ahalegin berezia egin dute proiektua aurrera eramateko. Joan Mari Larrarte EKTko kon-

tseilari ordezariaren esanetan, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko erronka handia abian da.

«**ITXURA ONA**». Aurkezpen ekitaldian etorri zirenen iritzia berdintsua izan zen, guztiak itxura ona zuela esaten baitzuten. «Irakurtzeko erraza da, eta oso itxura ona du», azaldu zuen Ander Izaguirre kazetari eta bidaiaia. Bigarren alerako testu bat idatzi du berak, eta oso pozik agertu zen. «Testu praktiko-

«**Testu praktikoak eskainiko ditu aldizkariak, eta jendeak gustura hartuko duela uste dut**»

ANDER IZAGUIRRE  
BIDAIAIA ETA KAZETARIA

ak eskainiko ditu aldizkariak eta jendeak gustura hartuko duela uste dut». Izaguirrek bidaia ugari egin ditu eta bere esanetan, kanpoan toki ederrak badira, baina etxetik gertu ere aurki daitezke.

Josu Iztueta bidaiaia ere oso pozik agertu zen aldizkariarekin. «Bost urte behar izan dira *Nora* sortzeko, baina azkenean kalean da, kalitate handiarekin, gainera. Lehen alea mehea bada ere, gizen-tzen saiatuko gara». Hurrengo ale-

«**Bost urte behar izan dira ‘Nora’ sortzeko, baina azkenean kalean da, kalitate handiarekin gainera**»

JOSU IZTUETA  
BIDAIAIA

## ■ nora euskal herria

- **Sortzaileak**: Sua argitaletxea eta Euskarazko Komunikazio Taldea SA.
- **Zuzendaritza eta erredakzioa**: Javier Pascual eta Imanol Agirre.
- **Maiztasuna**: Hilabetekaria.
- **Banaketa**: Hileko lehen igandean BERRIAREKIN batera banatuko da; lehen zenbakia igande honetan, otsailaren 3an. Horretaz gain, aldizkariaren harpidetza ere egin ahal izango da, (00-34) 943-303554 telefono zenbakira deituz, eta kioskoan ere erosi ahal izango da egunkaririk gabe.

etan idazteko prest azaldu zen eta jendeak harrera ona egingo diola uste du. «Jendeak gustukoa ditu aisialdiarekin lotutako lanak».

«**IRAKURTERRAZA**». Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak itxura ona hartu zion aldizkariari. «Lehendik *Euskal Herria* aldizkariak lan handia egin du, eta orain, *Nora*-k bere ibilbidea egin behar du. Euskal kultura beste pauso bat da, eta jendeak gustukoa izango duela iruditzen zaio». Olanoren aburuz, jendeak geroz eta produktu bisualagoak nahi ditu, eta horren aurrean, *Nora*-k ikusgarritasuna eskaintzen du.

Komunikabideen arloko jende ugari gerturatu zen aurkezpena. Horien artean, Odile Kruzeta, Euskadi Irratiko zuzendaria zegoen. «Itxura oso ona du aldizkariak, oso polita da. *Euskal Herria* aitzindari izan zen, eta orain lehen euskarazko bidaia aldizkaria kalean daga. Euskaldunok mendizaletasunaren gaia gustukoa dugu, beraz, aldizkariak harrera ona izango duela uste dut».

Aurkezpena jende ugari bildu zen, arlo ezberdinetakoak, gainera. Bertan izan ziren, Santiago Yaniz argazkilaria, Klara Badiola aktorea, Amaia Agirre eta Mirari Martiarena bertsolariak, Urtzi Urrutikoetxea kazetaria... Guztiak *Nora* ezagutu nahi zuten. Dagoneko lehen bidaia egin du *Nora*-k, baina, aurrerantz, beste asko egiteko prest izango da.



■ **‘Barrundia. Lazarragaren erresuma’**. Alberto Barandiaran BERRIAKO kazetariak Joan Perez Lazarragaren sorlekuaz idatzi du *Nora*-ren lehen zenbakian, eta argazkiak Oscar Fernandez argazkilaria egin ditu. *Euskara Bidaie* izeneko atalean, Barandiaranek hile-

ro euskararekin harreman estua duen toki bat emango du ezagutzera. Lehen zenbakian, Barrundia eskualdeaz gain, Perez Lazarragaren garaiaz eta horrek idatzi zituen eskuizkribuen berri ematen dute, baita datu praktikoa batzuk ere.



■ **‘Bide historikoak Pirinioetan zehar’**. Ramon Olasagasti kazetariak Pirinioak ezagutzeko sei proposamen egin ditu *Nora*-ren lehen zenbakiko artikulua honetan: *Enaren bidea*, *Agoteen bidea*, *Zumalakarregiren bidea*, *Mugalarien bidea*, *Almadien bidea* eta

*Amairuko gaztelu beltzaren bideak*. Argazkiak Santiago Yaniz argazkilaria egin ditu. Bideen azalpenaz gain, bertako hainbat kontu eta istorio biltzen ditu, baita informazio gehiago nahi duenarentzat zenbait webgune ere.